



## CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES, EN REGIMEN DE EVALUACIÓN INDIVIDUALIZADA, DE BONOS DESCUENTO PARA INCENTIVAR EL CONSUMO EN COMERCIOS, HOSTELERÍA Y SERVICIOS DE BARAÑAIN

### A. ENTIDAD CONVOCANTE:

- 1. Administración convocante:** Excmo. Ayuntamiento de Barañain.
- 2. Órgano concedente:** Junta Gobierno Local.
- 3. Área gestora:** TIC-Telecentro, Comercio y Empleo.
- 4. Órgano instructor:** Secretaría.

### B. EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

El Ayuntamiento de Barañain, consciente de la compleja situación a la que se enfrentan los establecimientos comerciales, hosteleros y de servicios de la localidad debido a la coyuntura económica actual, promueve esta convocatoria, mediante la creación de un sistema de **bonos descuentos (Barabonos)** subvencionados por el Ayuntamiento, con el fin de fomentar, reactivar y potenciar el consumo en el comercio minorista, hostelería y de servicios de Barañain.

### C. OBJETO, CONDICIONES, REQUISITOS Y FINALIDAD DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN:

#### 1. Objeto de la convocatoria:

La presente convocatoria tiene por objeto desarrollar el procedimiento para la concesión de subvención destinada a la reactivación y el fomento del consumo en el comercio minorista, hostelero y de servicios de Barañain mediante la creación de bonos descuentos (**Barabonos**) subvencionados por el Ayuntamiento Barañain.

#### 2. Finalidad de la convocatoria:

Mediante esta convocatoria, se pretende estimular el consumo de proximidad incentivando la compra en el comercio, la hostelería y servicios de Barañain para impulsar el desarrollo económico.

## BARAÑAINGO SALTOKIETAN, OSTALARITZAN eta ZERBITZUETAN KONTSUMOA SUSTATZEKO DESKONTU- BONUEN BANAKAKO EBALUAZIO- DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

### A. ENTITATE DEITZAILEA:

- 1. Administrazio deitzailea:** Barañaingo Udala.
- 2. Organo emailea:** Tokiko Gobernu Batzarra.
- 3. Kudeaketa-arloa:** IKT-Telezentroa, Merkataritza eta Enplegua.
- 4. Instrukzio-organoa:** Idazkaritza.

### B. ZIOEN AZALPENA:

Barañaingo Udalak, egungo koiuntura ekonomikoaren ondorioz herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu establezimenduek aurre egin behar dioten egoera konplexuaren jakitun, deialdi hau sustatzen du, Udalak diruz lagundutako **deskontu-bonuen (Barabonuak)** sistema bat sortuz, Barañaingo txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan kontsumoa sustatzeko, suspertzeko eta sustatzeko.

### C. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK eta HELBURUA:

#### 1. Deialdiaren xedea:

Deialdi honen xedea da Barañaingo txikizkako merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako kontsumoa suspertzeko eta sustatzeko dirulaguntzak emateko prozedura garatzea, Barañaingo Udalak diruz lagundutako deskontu-bonuak (**Barabonuak**) sortuz.

#### 2. Deialdiaren helburua:

Deialdi honen bidez, hurbileko kontsumoa sustatu nahi da, Barañaingo merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan erosketan sustatuz garapen ekonomikoa bultzatzeko.



### **3. Condiciones, requisitos y plazos para la ADHESIÓN a la presente convocatoria:**

**Ciudadanía:** Dirigido a las personas físicas. Las personas consumidoras con derecho a beneficiarse del descuento del bono (Barabono) serán las personas mayores de 18 años residentes en cualquier municipio de Navarra con el límite de 7 bonos por persona. Podrán participar siempre que cumplan con las obligaciones previstas en las bases de la convocatoria.

**Comercio, Hostelería y Servicios con local de Barañain:** Podrán participar en esta convocatoria todos aquellos comercios minoristas, de hostelería y servicios de Barañain que se encuentren en la situación que fundamente la concesión de la subvención y en los que concurren las circunstancias previstas a continuación, siempre que cumplan con las obligaciones previstas en las bases de la convocatoria y con la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

Podrán concurrir a la convocatoria todos aquellos establecimientos que figuren de alta en el Impuesto de Actividades económicas en el municipio de Barañain y que, además, tengan un **local abierto al público**.

Además, la persona titular del establecimiento debe tener la consideración de autónoma, microempresa o pyme (pequeña y mediana empresa) ubicada en Barañain.

Quedarán excluidas de esta convocatoria:

- ✓ Locales de apuestas.
- ✓ Estancos y administraciones de lotería.
- ✓ Supermercados.
- ✓ Establecimientos de más 600 m<sup>2</sup>.
- ✓ Las Farmacias pueden participar, quedando excluidos los medicamentos.

#### **3.1. Condiciones de adhesión por parte del sector comercial y hostelero:**

Los comercios minoristas, hosteleros y de servicios de Barañain que reúnan los requisitos señalados, podrán adherirse a la convocatoria mediante una **solicitud** que

### **3. Deialdi honi ATXIKITZEKO baldintzak, betekizunak eta epeak:**

**Herritarrak:** pertsona fisikoei zuzendua. Bonuaren deskontuaz (Barabonua) baliatzeko eskubidea duten kontsumitzaileak Nafarroako edozein udalerritan bizi diren 18 urtetik gorakoak izango dira, pertsona bakoitzeko 7 bonuren mugarekin. Parte hartu ahal izango dute, betiere deialdiaren oinarrietan aurreikusitako betebeharrak betetzen badituzte.

**Barañainen lokala duten Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuak:** Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Barañaingo txikizkako saltokiek, ostalaritzakoek eta zerbitzuek, baldin eta dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude eta jarraian aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, betiere deialdiaren oinarrietan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan aurreikusitako betebeharrak betetzen badituzte.

Barañaingo udalerrian Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dauden eta, gainera, **jendearentzat zabalik dagoen lokal bat** duten establezimendu guztiek parte hartu ahal izango dute deialdian.

Gainera, establezimenduaren titularrak Barañainen kokatutako autonomotzat, mikroenpresatzat edo ETEtzat (enpresa txiki eta ertaina) hartu behar du.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- ✓ Apustu-lokalak.
- ✓ Estankoak eta loteria-administrazioak.
- ✓ Barañaingo supermerkatuak.
- ✓ 600 m<sup>2</sup> baino gehiagoko establezimenduak.
- ✓ Farmaziek parte har dezakete, sendagaiak kanpo utzita.

#### **3.1. Merkataritza- eta ostalaritza-sektoreak atxikitzeke baldintzak:**

Barañaingo txikizkako eta ostalaritzako saltokiek, adierazitako baldintzak betetzen badituzte, deialdiari atxiki ahal izango zaizkio, Udalaren **egoitza elektronikoaren**



deberá registrarse a través de la **sede electrónica** del Ayuntamiento de Barañain <https://sedeelectronica.baranain.es/carpeta-ciudadana/>

Incorporando a la **solicitud** la siguiente documentación:

1. **Declaración responsable** en la que se haga constar que la persona solicitante cumple los requisitos generales para obtener la condición de beneficiaria y de no hallarse incurso en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de persona o establecimiento beneficiario.
2. **Solicitud de abono** por transferencia sellado por la entidad financiera.
3. **Certificados** tanto de la persona solicitante como del negocio, que se encuentran al corriente de las obligaciones frente a la **Seguridad Social** y con **Hacienda Navarra**, mediante documentos acreditados y expedidos por ambas administraciones competentes.

**Documentación acreditativa** de quién actúa en representación de la persona solicitante:

4. **Modelo de representación** para la realización de trámites electrónicos firmado, acompañando el DNI del solicitante y si procede, acta o escritura de constitución de sociedad.

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá la persona interesada para que en un plazo máximo e improrrogable de **diez días**, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Cualquier anomalía observada en la utilización de esta subvención podrá ser objeto de investigación por parte del Ayuntamiento de Barañain. Los documentos deberán ser originales, copias compulsadas o copias que tengan carácter de auténticas conforme a la legislación vigente.

bidez erregistratu beharko den **eskaera** baten bidez:

<https://sedeelectronica.baranain.es/eu/carpeta-ciudadana/>

**Eskabidearekin** batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. **Erantzukizunpeko adierazpena**, eskatzaileak onuradun izateko baldintza orokorrak betetzen dituela eta persona edo establezimendu onuradun izateko inolako debeku-kausatan ez dagoela adierazten duena.
2. Transferentzia bidez **ordaintzeko eskaera**, finantza-erakundeak zigilatuta.
3. Eskatzailearen eta negozioaren ziurtagiriak, **Gizarte Segurantzarekiko** eta **Nafarroako Ogasunarekiko** betebeharrak egunean dituztenak, bi administrazio eskudunek egiaztatutako eta emandako agirien bidez.

Eskatzailearen ordezkari gisa nor diharduen **egiaztatzen duen dokumentazioa**:

4. Izapide elektronikoak egiteko **ordezkaritza-eredua**, sinatuta, eskatzailearen NANA erantsita, eta, hala badagokio, sozietatea eratzeko akta edo eskritura.

Eskabideak deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunak **hamar eguneko** gehieneko epe luzaezin batean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

Dirulaguntza hau erabiltzean antzemandako edozein irregulartasun ikertu ahal izango du Barañaingo Udalak. Dokumentuek jatorrizkoak, kopia konpultsatuak edo indarreko legeriaren arabera benetakoak diren kopiak izan beharko dute.



**El plazo para solicitar la adhesión** será de 10 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación de la misma en el **Boletín Oficial de Navarra**. La presentación de solicitudes fuera del plazo señalado dará lugar a la inadmisión de las mismas. Al finalizar este plazo, el Ayuntamiento comprobará de oficio que las solicitudes cumplen los requisitos y publicará la lista de establecimientos y negocios definitivamente admitidos en la web municipal.

A partir de ese momento, el establecimiento adherido tendrá acceso a una aplicación web proporcionada por el Ayuntamiento de Barañain, que garantizará la trazabilidad digital del bono, en la cual deberá inscribirse para poder participar en la convocatoria.

A los establecimientos adheridos, se les ayudará en el uso y manejo de la aplicación a través de tutoriales y/o sesiones formativas.

A través de esta aplicación, el establecimiento adherido, en el momento de la compra, se compromete a identificar al cliente, a comprobar si dispone de bonos y a realizar el canje de los bonos correspondientes de forma electrónica. Además, deberá presentar la **justificación de la venta asociada (fotografía ticket de caja y/o factura) para su posterior cobro**.

El establecimiento adherido deberá disponer de dispositivo electrónico (móvil, tableta, pc) y acceso a internet a su cargo, con las características técnicas que permitan acceder a la aplicación y su utilización para el proceso de canje de bonos.

El establecimiento adherido se compromete a la recepción y colocación de los materiales publicitarios que en su caso indique el Ayuntamiento de Barañain, en un lugar visible del establecimiento.

Los establecimientos adheridos podrán ser contactados para verificar el funcionamiento y su opinión sobre el proceso y la campaña.

**Atxikipena eskatzeko epea** 10 egun naturalekoa izango da, atxikitzea **Nafarroako Aldizkari Ofizialean** argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko. Epe hori amaitzean, Udalak ofizioz egiaztatuko du eskaerak baldintzak betetzen dituztela, eta behin betiko onartutako establezimenduen eta negozioen zerrenda argitaratuko du udalaren webgunean.

Une horretatik aurrera, atxikitako establezimenduak Barañaingo Udalak emandako web-aplikazio bat eskuratu ahal izango du. Aplikazio horrek bonuaren trazabilitate digitala bermatuko du, eta bertan izena eman beharko du deialdian parte hartu ahal izateko.

Atxikitako establezimenduei aplikazioa erabiltzen eta maneiatzen lagunduko zaie, tutoretzen eta/edo prestakuntza-saioen bidez.

Aplikazio horren bidez, atxikitako establezimenduak konpromisoa hartzen du, erosteko unean, bezeroa identifikatzeko, bonurik baduen egiaztatzeko eta dagozkion bonuak elektronikoki trukatzeko. Gainera, **lotutako salmentaren justifikazioa** aurkeztu beharko da (**kutxako tiketaren eta/edo fakturaren argazkia**), **ondoren kobratzeko**.

Atxikitako establezimenduak gailu elektronikoa (Mugikorra, tableta, pc-a) eta Interneterako sarbidea izan beharko ditu bere kargura, aplikaziora sartzeko eta bonuak trukatzeko prozesurako erabiltzeko aukera ematen duten ezaugarri teknikoekin.

Atxikitako establezimenduak konpromisoa hartzen du Barañaingo Udalak programari buruz adierazten dituen publizitate-materialak establezimenduko leku ikusgarri batean jaso eta jartzeko.

Atxikitako establezimenduak harremanetan jarri ahal izango dira funtzionamendua eta prozesuari eta kanpainari buruz duten iritzia egiaztatzeko.



### 3.2. Requisitos para ser beneficiario/a:

Pueden solicitar la subvención con cargo a la presente convocatoria todos los **comercios minoristas, hostelería y de servicios con local abierto al público** que realicen su actividad en Barañain y que reúnan los siguientes requisitos:

- ✓ Figurar de alta en el Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.) de Barañain (epígrafes de comercio minorista, hostelería y de servicios).
- ✓ No hallarse en ninguna de las prohibiciones previstas en el artículo 13 de Ley 38/2003, de 17 noviembre, General Subvenciones.
- ✓ Estar al corriente de las obligaciones fiscales y de Seguridad Social, acreditándolo mediante las oportunas certificaciones (Hacienda Foral y Seguridad Social).
- ✓ En el caso de las obligaciones fiscales con el Ayuntamiento de Barañain se comprobará de oficio, haciendo constar dicha circunstancia mediante la oportuna diligencia. Así mismo, previamente a la propuesta de concesión, se comprobará de oficio que no tiene cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal.
- ✓ No estar cumpliendo sanciones administrativas firmes ni una sentencia firme condenatoria o, en su caso, de no estar pendiente de cumplimiento de una sanción o sentencia condenatoria impuesta por ejercer o tolerar prácticas laborales consideradas discriminatorias por razón de sexo o de género.

### 4. Condiciones, requisitos y plazos para la emisión, adquisición y utilización de Bonos a la presente convocatoria:

Los Barabonos podrán adquirirse a partir de las 10:00h. del lunes 25 de marzo del 2024, a través de <https://www.bonosbaranain.com>

La ciudadanía puede ser atendida presencialmente por personal del Ayuntamiento en el proceso de obtención de los Barabonos (Oficina Atención Ciudadana). Con preferencia por las personas mayores de 64 años, o aquellas personas con certificado de

### 3.2. Onuradun izateko baldintzak:

Barañainen diharduten eta **lokal irekia duten txikizkako, ostalaritzako eta zerbitzuetako saltokiak** eska dezakete dirulaguntza deialdi honen kontura, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- ✓ Barañaingo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta emanda egotea (txikizkako merkataritzaren, ostalaritzaren eta zerbitzuen epigrafeak).
- ✓ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan aurreikusitako debekuetako batean ere ez egotea.
- ✓ Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, dagozkion ziurtagirien bidez egiaztatuta (Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantzaz).
- ✓ Barañaingo Udalarekiko zerga-betebeharren kasuan, ofizios egiaztatuko da, eta inguruabar hori dagokion eginbidearen bidez jasoko da. Halaber, emakida-proposamena egin aurretik, ofizios egiaztatuko da ez dagoela Udal Diruzaintzari ordaindu beharreko zenbatekorik.
- ✓ Administrazio-zehapen irmorik edo kondena-epai irmorik betetzen ari ez izatea, edo, hala badagokio, sexuagatik edo generoagatik diskriminatzailetzat jotzen diren lan-praktikak egiteagatik edo onartzeagatik ezarritako zehapen edo kondena-epai bat betetzeke ez egotea.

### 4. Deialdi honetarako bonuak jaulki, eskuratu eta erabiltzeko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Bonuak Barañaingo Udalaren <https://www.bonosbaranain.com> webgunearen bidez eskuratu ahal izango dira, 2024ko martxoaren 25ean, astelehenean, 10:00etatik aurrera.

Barabonuak lortzeko prozesuan, Udaleko langileek arreta eman diezaiekete aurrez aurre herritarrei (Herritarrak Hartzeko OAC bulegoa). 64 urtetik gorakoak edo minusbaliotasun-ziurtagiria dutenak lehenetsiko dira.



minusvalía. Se reservan para ello, 500 bonos de los 5.000 disponibles.

Una vez adquirido el Barabono, este se recibirá a través del correo electrónico, con un doble código: código numérico y código QR. Los barabonos podrán imprimirse.

La venta de bonos estará operativa desde las 10:00h. del 25 de marzo de 2024 hasta que se agoten, siendo la fecha límite el 6 de mayo de 2024.

El Bono (Barabono) no estará asignado a ningún establecimiento, será posible canjearlo en cualquier establecimiento participante en la campaña.

El Ayuntamiento de Barañain pondrá a la venta un total de 5.000 bonos. Los bonos a la venta tendrán un valor facial de veinte euros (20 €) de los que las personas clientes pagarán la cantidad de catorce euros (14 €) por bono, siendo los seis euros (6 €) restantes la cantidad a subvencionar por el Ayuntamiento de Barañain.

Las personas consumidoras que deseen comprar los bonos, deberán identificarse mediante su número DNI. Por cada DNI se podrán comprar un máximo de **siete (7) bonos**, esto es, un pago total de noventa y ocho euros (98 €) que tendrá un valor real de ciento cuarenta euros (140 €).

**Podrá adquirir bonos toda persona mayor de 18 años. Pudiendo adquirirse un máximo de siete bonos por persona. El Canje máximo será de 10 bonos por ticket/factura de compra.**

Los bonos podrán canjearse en cualquiera de los establecimientos adheridos y publicados en la web. El periodo para poder canjear los bonos será desde el momento de su adquisición hasta 6 de mayo de 2024, ambos inclusive.

Se podrán utilizar en compras de valor de PVP de veinte euros (20,00 €) o superior. En el caso de utilizar el bono en compras de valor inferior a veinte euros (20,00 €), no se devolverá el importe no gastado. En este caso, el Ayuntamiento abonará al establecimiento el **importe real de la compra**.

Horretarako, eskuragarri dauden 5.000 bonuetatik 500 gordeko dira.

Behin Barabonua erosita, posta elektronikoaren bidez jasoko da, kode bikoitzarekin: kode numerikoa eta QR kodea. Barabonuak inprimatu ahal izango dira.

Bonuen salmenta 2024ko martxoaren 25eko 10:00etatik agortu arte egongo da erabilgarri, eta 2024ko maiatzaren 6a izango da azken eguna.

Bonua (Barabonua) ez zaio inongo establezimenduri esleituko; kanpaina parte hartzen duen edozein establezimendutan trukatu ahal izango da.

Barañaingo Udalak 5.000 bonu jarriko ditu salgai. Salgai dauden bonuek hogeituroko (20 €) aurpegi-balioa izango dute, eta bezeroek hamalau euro (14 €) ordainduko dituzte bonu bakoitzeko. Gainerako sei euroak (6 €) Barañaingo Udalak diruz lagunduko ditu.

Bonuak erosi nahi dituzten kontsumitzaileek NAN zenbakiaren bidez identifikatu beharko dute beren burua. NAN bakoitzeko gehienez **zazpi (7) bonu** erosi ahal izango dira; hau da, guztira laurogeita hemezortzi euro (98 €) ehun eta berrogeituroko (140 €) benetako balioarekin.

**Bonuak 18 urtetik gorako pertsona orok erosi ahal izango ditu. Pertsona bakoitzak gehienez zazpi bonu eskuratu ahal izango ditu. Gehienez 10 bonu trukatu ahal izango dira tiket/erosketa-faktura bakoitzeko.**

Bonuak edozein establezimendutan trukatu ahal izango dira, webgunean argitaratuta. Bonuak trukatzeko epea erosten diren unetik 2024ko maiatzaren 6ra artekoa izango da, biak barne.

Hogeituroko (20,00 €) edo hortik gorako JSPren balioa duten erosketetan erabili ahal izango dira. Bonua hogeiturotik beherako (20,00 €) erosketetan erabiltzen bada, ez da itzuli beharko gastatu gabeko zenbatekoa. Kasu horretan, Udalak **erosketaren benetako zenbatekoa** ordainduko dio establezimenduari.



No se devolverá el importe de los bonos adquiridos y no utilizados. La política de devoluciones de los bienes comprados mediante el bono será la que cada establecimiento determine en cuanto a plazo y no se procederá a la restitución del importe, sino a su sustitución por otro producto del mismo establecimiento.

**D. CRÉDITOS PRESUPUESTARIOS, CUANTÍA TOTAL MÁXIMA Y CUANTÍA INDIVIDUALIZADA DE LA SUBVENCIÓN:**

**1. Cuantía máxima convocada dentro de los créditos disponibles:** 30.000 €.

**2. Partida presupuestaria:** 21.43901.47200

Las ayudas que se concedan serán reconocidas hasta el límite del crédito disponible en la aplicación presupuestaria citada. No podrán concederse subvenciones por cuantía superior a la establecida en esta convocatoria.

Sin perjuicio de lo indicado, en caso de agotarse la cantidad establecida en esta convocatoria, podrá ampliarse mediante la correspondiente modificación presupuestaria sin necesidad de nueva convocatoria.

**3. Cuantía individualizada máxima y criterios para su determinación:**

Los bonos tendrán un valor real de veinte euros (20 €). Cada persona mayor de 18 años podrá comprar 7 bonos como máximo al coste de catorce euros (14,00 €) cada bono y podrá gastar uno o varios bonos en cada compra que efectúe en los establecimientos adheridos.

Cada establecimiento adherido recibirá una subvención de seis euros (6 €) por cada bono que se utilice en una venta dentro de su local.

**E. OBLIGACIONES:**

De la persona o entidad beneficiaria:

- Justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.
- El sometimiento a cualesquiera actuaciones de comprobación que se efectúen por los

Ez da itzuliko erositako eta erabili gabeko bonuen zenbatekoa. Bonuaren bidez erositako ondasunak itzultzeko politika establezimendu bakoitzak zehaztuko du epeari dagokionez, eta ez da zenbatekoa itzuliko, establezimendu bereko beste produktu batekin ordeztuko da.

**D. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA eta BANAKAKO ZENBATEKOA:**

**1. Kreditu erabilgarrien barruan deitutako gehieneko zenbatekoa:** 30.000 €.

**2. Aurrekontu-partida:** 21.43901.47200.

Ematen diren laguntzak aipatutako aurrekontu-aplikazioan eskuragarri dagoen kredituaren mugaraino onartuko dira. Ezingo da deialdi honetan ezarritako zenbatekoa gainditzen duen dirulaguntzarik eman.

Adierazitakoari kalterik egin gabe, deialdi honetan ezarritako zenbatekoa agortuz gero, dagokion aurrekontu-aldaketaren bidez handitu ahal izango da, beste deialdirik egin behar izan gabe.

**3. Gehieneko banakako zenbatekoa eta zenbateko hori zehazteko irizpideak:**

Bonuek hogeituroko (20 €) benetako-balioa izango dute. 18 urtetik gorako pertsona bakoitzak 7 bonu erosi ahal izango ditu, gehienez ere hamalau euroren truke (14,00 €), eta bonu bat edo batzuk gastatu ahal izango ditu atxikitako establezimenduetan egiten duen erosketa bakoitzean.

Atxikitako establezimendu bakoitzak sei euroko (6 €) dirulaguntza jasoko du bere lokalaren barruko salmenta batean erabiltzen den bonu bakoitzeko.

**E. BETEBEHARRAK:**

Dirulaguntzaren pertsona edo erakunde onuradunaren betebeharrak dira:

- Dirulaguntza emateko edo baliatzeko betekizunak eta baldintzak bete direla justifikatzea, bai eta helburua bete dela ere.



órganos competentes para ello, en relación con la subvención concedida o recibida.

- c) Informar de toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones incompatibles dará lugar a la modificación de la resolución de la concesión.
- d) Deber de secreto y confidencialidad: Cumplir con el deber de secreto y confidencialidad respecto a la información de las personas ciudadanas a las que se accede para la comprobación de que tiene activo el bono descuento.
- e) Presentar la documentación justificativa que aparece en el apartado M.

## **F. PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES:**

### **1. Dónde presentar las solicitudes:**

Las solicitudes se presentarán en el **registro electrónico** del Ayuntamiento de Barañain (disponible a través de la Sede electrónica en la dirección [www.baranain.es](http://www.baranain.es)), según lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley de Procedimiento Administrativo 39/2015 para las personas jurídicas, o aquellas obligadas a relacionarse a través de medios electrónicos con las Administraciones Públicas.

Si se presenta solicitud presencialmente, en formato papel, u otra vía que no sea la electrónica, el Ayuntamiento de Barañain requerirá al solicitante para que la subsane a través de su presentación electrónica. A estos efectos, se considerará como fecha de presentación de la solicitud aquella en la que haya sido realizada la subsanación.

### **2. Plazo de presentación de solicitudes:**

Las solicitudes deberán presentarse necesariamente a través del **registro electrónico** del Ayuntamiento.

El plazo para solicitar la adhesión a esta convocatoria será de 10 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación de la misma en el Boletín Oficial de Navarra. La presentación de solicitudes fuera del plazo señalado dará lugar a la inadmisión de las mismas.

b) Emandako edo jasotako dirulaguntzari dagokionez, organo eskudunek egiten duten edozein egiaztapen-jardueraren mende jartzea.

c) Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira eta, nolana ere, aldi berean dirulaguntza bateraezinak lortzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egingo da.

d) Sekretu- eta konfidentzialtasun-betebeharra: deskontu-bonua aktibo dagoela egiaztatzeko eskuratzen diren herritarren informazioari dagokionez, sekretu- eta konfidentzialtasun-betebeharra betetzea.

e) M. atalean agertzen den justifikazio-dokumentazioa aurkeztea.

## **F. ESKAERAK NON, NOIZ ARTE eta NOLA AURKEZTU:**

### **1. Eskabideak non aurkeztu:**

Eskabideak Barañaingo Udalaren **erregistro elektronikoa** aurkeztuko dira (egoitza elektronikoa dago eskuragarri, [www.baranain.eus](http://www.baranain.eus) helbidean), Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona juridikoentzat edo administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzera behartuta daudenentzat.

Eskabidea aurrez aurre aurkezten bada, paperean edo elektronikoa ez den beste bideren batean, Barañaingo Udalak eskatzaileari eskatuko dio zuzen dezala, aurkezpen elektronikoen bidez. Ondorio horietarako, zuzenketa egin den eguna hartuko da eskaeraren aurkezpen-datatzat.

### **2. Eskabideak aurkezteko epea:**

Eskabideak Udalaren **erregistro elektronikoa** bidez aurkeztu beharko dira nahitaez.

Deialdi honi atxikitzeko eskaera egiteko epea 10 egun naturalekoa izango da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.





### **3. Forma de presentación de las solicitudes y de la documentación:**

Las solicitudes deberán formularse telemáticamente mediante instancia firmada por la persona interesada o por persona que acredite su representación por cualquier medio válido en derecho. En este caso se aportará el documento acreditativo de la representación.

### **4. Documentos que deben acompañar a la solicitud:**

- ✓ **Declaración responsable** debidamente cumplimentada por la persona interesada o por quien acredite su representación por cualquier medio válido en derecho, en la que se haga constar que la persona solicitante cumple los requisitos generales para obtener la condición de beneficiaria y no se halla incurso en ninguna causa de prohibición para obtener la condición de beneficiario/a.
- ✓ **Solicitud de abono por transferencia** sellado por la entidad financiera.
- ✓ **Certificados** de estar al corriente en la **Seguridad Social y en Hacienda Foral** en el momento de solicitar la subvención.
- ✓ **Documentación acreditativa** de quién actúa en representación de la persona solicitante: Modelo de representación para la realización de trámites electrónicos firmado, acompañando el DNI del solicitante y si procede, acta o escritura de constitución de la sociedad.

El **Ayuntamiento de Barañain comprobará de oficio** el alta Impuesto Actividad Económica (IAE), las obligaciones fiscales, y que no tenga cantidad pendiente de pago a la Tesorería Municipal, por tanto, no es necesario presentarlos.

Si la solicitud no reúne los requisitos exigidos en la convocatoria o estuviera incompleta se requerirá al solicitante para que, en un plazo de diez días hábiles, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución declarando esta circunstancia.

### **3. Eskabideak eta agiriak aurkezteko modua:**

Eskabideak egiteko, eskabide bat aurkeztu beharko da, interesdunak sinatuta, edo haren ordezkari egiaztatzen duen pertsona batek sinatuta, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabilita. Kasu horretan, ordezkari egiaztatze agiria aurkeztuko da.

### **4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:**

- ✓ **Erantzukizunpeko adierazpena**, interesdunak edo zuzenbidean baliozkoa den edozein bitartekoren bidez bere ordezkari egiaztatzen duenak behar bezala beteta, eskatzaileak onuradun izateko baldintza orokorrak betetzen dituela eta onuradun izateko inolako debeku-kausaren eraginpean ez dagoela adieraziz.
- ✓ **Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera**, finantza-erakundeak zigitatua.
- ✓ Dirulaguntza eskatzeko unean **Gizarte Segurantzaren eta Foru Ogasunean** egunean egotearen **ziurtagiriak**.
- ✓ Eskatzailearen ordezkari gisa nor diharduen **egiaztatzen duen dokumentazioa**: Izapide elektronikoak egiteko ordezkari-eredua, sinatuta, eskatzailearen NANA erantsita, eta, hala badagokio, sozietatea eratzeko akta edo eskritura.

**Barañaingo Udalak ofizioz egiaztatuko ditu** Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergaren (JEZ) alta, zerga-betebeharrak eta Udal Diruzaintzari ordaindu beharreko kopururik ez dagoela; beraz, ez da beharrezkoa horiek aurkeztea.

Eskabideak deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez baditu edo osatu gabe badago, eskatzaileari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, inguruabar hori adierazten duen ebazpena eman ondoren.



## **G. CRITERIOS OBJETIVOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES:**

Se comprobará el cumplimiento de los requisitos del punto B3.1 y B3.2 y que la documentación presentada según el punto F4 es correcta.

## **H. ÓRGANO DE VALORACIÓN PARA LA EVALUACIÓN DE LAS SOLICITUDES:**

Los servicios técnicos de TIC-Telecentro, Comercio y Empleo emitirán informe de valoración de las solicitudes presentadas conforme a los criterios contemplados en el apartado F, elevándose desde dicha Área la correspondiente propuesta al órgano competente.

Todo ello sin perjuicio de la información que a tal efecto se facilite con posterioridad, en el momento en que proceda, a la Comisión "Servicios Generales, Nuevas Tecnologías, Comercio y Empleo".

## **I. INSTRUCCIÓN Y RESOLUCIÓN DEL PROCEDIMIENTO. NOTIFICACIÓN DE LA RESOLUCIÓN:**

- 1. Instrucción del procedimiento:** Área TIC-Telecentro, Comercio y Empleo.
- 2. Plazo de resolución y notificación:** El plazo máximo para resolver y notificar la resolución será de tres meses.

La resolución de concesión deberá ser motivada, se hará constar de manera expresa: la entidad solicitante o solicitantes a quienes se concede la subvención, y su cuantía, y, en su caso, la entidad solicitante o solicitantes cuyas peticiones hayan resultado desestimadas.

La resolución de concesión, que pondrá fin a la vía administrativa, será notificada a la entidad solicitante o solicitantes de conformidad con lo prescrito en el artículo 40 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Procedimiento Común de las Administraciones Públicas.

Transcurrido el plazo máximo establecido para resolver el procedimiento sin que haya recaído resolución expresa, se entenderá desestimada la solicitud.

## **G. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJETIBOAK:**

B3.1 eta B3.2 puntuetako baldintzak betetzen direla eta F4 puntuaren arabera aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela egiaztatuko da.

## **H. ESKABIDEAK EBALUATZEKO BALORAZIO-ORGANOA:**

IKT Telezentroko, Merkataritzako eta Enpleguko zerbitzu teknikoek aurkeztutako eskabideen balorazio-txostena egingo dute, F atalean jasotako irizpideen arabera, eta arlo horrek dagokion emakida-proposamena bidaliko dio organo eskudunari.

Hori guztia, hargatik eragotzi gabe ondoren, dagokion unean, "Zerbitzu Orokorrak, Teknologia Berriak, Merkataritza" Batzordeari ematen zaion informazioa.

## **I. PROZEDURA INSTRUITU eta EBAZTEA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:**

- 1. Prozeduraren instrukzioa:** IKT- Telezentroa, Merkataritza eta Enplegua arloa.
- 2. Ebazteko eta jakinarazteko epea:** ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da.

Dirulaguntza emateko ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta berariaz adierazi beharko da zein erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza eta zenbateko, eta, hala badagokio, zein erakunde eskatzaileari ez zaion onartu eskaera.

Dirulaguntza emateko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Prozedura ebazteko ezarritako gehieneko epea igaro eta ez bada berariazko ebazpenik eman, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.



## **J. PUBLICIDAD DE LAS SUBVENCIONES CONCEDIDAS:**

La publicación de la resolución de concesión se realizará por los siguientes medios:

- ✓ Tablón de anuncios de la Sede Electrónica del Ayuntamiento de Barañain.
- ✓ Base de Datos Nacional de Subvenciones (de conformidad con lo indicado en el artículo 18.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones).

## **K. DETERMINACIÓN DE LOS GASTOS SUBVENCIONABLES:**

Serán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en la convocatoria.

## **L. COMPATIBILIDAD E INCOMPATIBILIDAD DE LA ACTIVIDAD SUBVENCIONADA:**

Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o entidades públicas y privadas que coincidan en su objeto o las que se contemple la misma finalidad.

## **M. GESTIÓN DEL PAGO AL ESTABLECIMIENTO ADHERIDO:**

El personal municipal revisará los bonos canjeados y procederá a su validación tras comprobar los datos de los tickets y/ o facturas. Una vez validado el canje, quedará listo para su pago en la remesa correspondiente.

La liquidación se realizará por periodos semanales y el abono se realizará en un plazo máximo de 30 días desde el canje.

## **N. JUSTIFICACIÓN:**

El establecimiento adherido se compromete a identificar al cliente, a realizar el canje de los bonos correspondientes de forma electrónica y por último a presentar la justificación a través de la aplicación de Barabonos (fotografía ticket de caja y/o factura) para su posterior cobro.

## **J. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA:**

Dirulaguntza emateko ebazpena honela argitaratuko da:

- ✓ Barañaingo Udalaren egoitza elektronikoko iragarki-taula.
- ✓ Dirulaguntzen Datu-base Nazionala (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2 artikuluan adierazitakoaren arabera).

## **K. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK ZEHAZTEA:**

Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta deialdian ezarritako epean egiten direnak.

## **L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA eta BATERAEZINTASUNA:**

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako dirulaguntzekin, baldin eta helburu bera badute edo helburu bera badute.

## **M. ATXIKITAKO ESTABLEZIMENDUAREN ORDAINKETA KUDEATZEA:**

Udal-langileek trukaturako bonuak berrikusiko dituzte eta baliozkotu egingo dituzte, tiketen eta/edo fakturen datuak egiaztatu ondoren. Trukea baliozkotu ondoren, dagokion sortan ordaintzeko prest geratuko da.

Likidazioa asteka egingo da, eta trukea egin eta gehienez 30 eguneko epean ordainduko da.

## **N. JUSTIFIKAZIOA:**

Atxikitako establezimenduak konpromisoa hartzen du bezeroa identifikatzeko, dagozkion bonuak elektronikoki trukatzeko eta, azkenik, justifikazioa Barabonoen aplikazioaren bidez aurkezteko (kutzako tiketaren argazkia eta/edo faktura), ondoren kobratzeko.



Los establecimientos adheridos podrán presentar justificación de bonos canjeados hasta el 13 de mayo de 2024 inclusive.

Cualquier justificación entregada después de esa fecha no será subvencionada. Revisado el bono y el ticket de la venta realizada se resolverá en el órgano competente, la concesión y pago de la subvención.

El Ayuntamiento se reserva el derecho a requerir cualquier información complementaria y la posibilidad de inspección y control de las actividades que sean receptoras de subvención.

Cualquier infracción de las presentes NORMAS dará lugar a la revocación de la subvención concedida, a la obligación por parte del establecimiento beneficiario de la devolución de las cantidades percibidas, incrementada con los correspondientes intereses de demora legales a contar desde el momento del pago de la subvención, y a la pérdida del derecho a participar en la próxima convocatoria.

#### **O. CAUSAS DE REINTEGRO:**

Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención, hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las causas de reintegro contempladas en los supuestos previstos en el artículo 17 de la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Barañain y en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

#### **P. INFRACCIONES Y SANCIONES:**

En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Barañain, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y, el Reglamento de desarrollo de la misma, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

Atxikitako establezimenduek trukaturako bonuen justifikazioa aurkeztu ahal izango dute 2024ko maiatzaren 13ra arte, egun hori barne.

Data horren ondoren aurkeztutako edozein justifikazio ez da diruz lagunduko. Egindako salmentaren bonua eta tiketa aztertu ondoren, organo eskudunean ebatziko da diru-laguntza eman eta ordaintzea.

Udalak beretzat gordetzen du edozein informazio osagarri eskatzeko eskubidea eta dirulaguntza jasotzen duten jarduerak ikuskatu eta kontrolatzeko aukera.

ARAU hauek urratuz gero, emandako dirulaguntza errebokatu egingo da, establezimendu onuradunak jasotako zenbatekoak itzuli beharko ditu, gehi dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera sortutako legezko berandutze-interesak, eta hurrengo deialdian parte hartzeko eskubidea galduko du.

#### **O. ITZULTZEKO ARRAZOIAK:**

Jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, eta berandutze-interesa eskatuko da dirulaguntza ordaindu zenetik itzuli behar dela erabakitzen den egunera arte, baldin eta Barañaingo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 17. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan jasotako itzulketa-kausaren bat gertatzen bada.

#### **P. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK:**

Arau-hausteei eta zehapenei dagokieraz, Barañaingo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduan xedatutakoa beteko da.



**Q. RÉGIMEN JURÍDICO DE SUBVENCIONES:**

En lo no previsto en la presente convocatoria se aplicará lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Barañain, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, en el Reglamento de desarrollo de la misma, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, la Ley Foral de la Administración Local de Navarra, Ley Foral de Haciendas Locales de Navarra, Ley Foral de la Hacienda Pública de Navarra y, de forma supletoria, la Ley General Presupuestaria. Y la Ley Foral de Igualdad.

**R. RÉGIMEN DE RECURSOS:**

La notificación a las personas interesadas de las resoluciones y actos administrativos que afecten a sus derechos e intereses, se efectuará de conformidad con lo establecido en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Contra estas bases y las resoluciones administrativas que se adopten en ejecución de las mismas podrán interponerse, potestativamente, los siguientes recursos:

- ✓ De reposición ante el órgano municipal autor del acto administrativo en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la notificación o, en su caso, publicación del acto que se recurra.
- ✓ De alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra en el plazo del mes siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.
- ✓ Contencioso administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia de Navarra en el plazo de dos meses. Este plazo se computará a partir del día siguiente a la notificación o publicación del acto que se recurra.

**Q. DIRULAGUNTZEN ARAUBIDE JURIDIKOA:**

Deialdi honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Barañaingo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Arautzailea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege hori garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea eta Lege Orokorra. Eta Berdintasunerako Foru Legea.

**R. ERREKURTSOEN ARAUBIDEA:**

Interesdunei beren eskubide eta interesei eragiten dieten ebazpenak eta administrazio-egintzak jakinaraziko zaizkie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Oinarri horien eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, honako errekurtsu hauek aurkeztu ahal izango dira, aukeran:

- ✓ Berraztertze errekurtsua administrazio-egintza egin duen udal-organoari, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, hala badagokio, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- ✓ Gora jotzeko errekurtsua Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.
- ✓ Administrazioarekiko auzi-errekurtsua Nafarroako Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean. Epe hori zenbatuko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.



## **S. OTRAS CONSIDERACIONES:**

---

### **1. Tratamiento de datos personales:**

**Responsable del tratamiento:**  
Ayuntamiento de Barañain.

**Finalidad:** Realizar la gestión del expediente del proyecto del Bono descuento (Barabono) desde el área Tic-Telecentro, Comercio y Empleo según bases o normas reguladoras de la correspondiente convocatoria. Justificar el cumplimiento de los requisitos establecidos para la concesión de las subvenciones o ayudas otorgadas.

**Derechos:** Tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos, dirigiéndose a las dependencias municipales. o al correo [dpd@baranain.com](mailto:dpd@baranain.com)

**Información adicional:** La información adicional y detallada sobre los tratamientos de datos está disponible en la sede electrónica de la Web municipal [www.baranain.es](http://www.baranain.es)

- 2. La omisión o falsedad de los datos:** que se hagan constar en la solicitud o en la declaración adjunta sobre convivencia, o la falsedad de los documentos aportados, dará lugar a la declaración de nulidad de aquella, además de las responsabilidades en que hayan podido incurrir sus autores.

## **S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:**

---

### **1. Datu pertsonalen tratamendua:**

**Tratamenduaren arduraduna:**  
Barañaingo Udala.

**Helburua:** deskontu-bonuaren (Barabonua) proiektuaren espedientea Ikt-Telezentroa, Merkataritza eta Enplegua arlotik kudeatzea, dagokion deialdiaren oinarrien edo arauen arabera. Emandako dirulaguntzak edo laguntzak emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzea.

**Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita beste eskubide batzuk ere, udal-bulegoetara joz edo [dpd@baranain.com](mailto:dpd@baranain.com) helbidearen bidez.

**Informazio gehigarria:** datu-tratamenduei buruzko informazio gehigarri eta zehatza [www.baranain.eus](http://www.baranain.eus) web-orrian dago eskuragarri.

- 2. Datuak falta badira edo faltsuak badira:** eskabidean edo erantsitako bizikidetzari buruzko adierazpenean agerrarazten badira, edo aurkeztutako agiriak faltsuak badira, deuseztasuna deklaratu da, bai eta egileek izan ditzaketan erantzukizunak ere.